

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EKONOMIA SUSTAPENENKO, TURISMOKO
ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

0614 LI/2022 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, biosegurtasunaren arloan inbertsioak egiteko dirulaguntzen 2022ko deialdia erabakitzekoa (azaroaren 2ko 949/2021 Errege Dekretua), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation funtsak).

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneke Departamentuko foru diputatuak 2022ko azaroaren 15ean ondorengo agindua eman du:

Diputatuen Kontseiluaren 2022ko apirilaren 26ko Erabakiaren bidez dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia onartu ziren: «Biosegurtasunaren arloan inbertsioak egiteko dirulaguntzak (abereak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroen hobekuntza edo eraikitzea, eta mintegiak), azaroaren 2ko 949/2021 Errege Dekretuaren arabera eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation funtsak)». Erabaki hori 2022ko apirilaren 29ko 80 zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Laguntza-lerroa finantzatzeko, ekitaldi honetako Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneke Departamentuaren aurrekontuetan 114,366,00 euro esleitu ziren guztira, 5.0440.400.770.00.11.2024 aurrekontu-partidaren kontura baimendutako gastua, hain zuzen ere. Zenbateko horren finantzazioa Estatuko Aurrekontu Orokorretatik dator, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan.

Deialdian jasotako eskaerak aztertu ondoren, dagozkion datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko behar diren jarduketak guztiak eginda gero, 4. oinarrian aurreikusitako ebaluazio batzordeak deialdiaren ebazpen proposamena egin du, zehaztuz eman beharreko laguntzak eta horiek zenbatekoak, baita ezeztu beharreko eskaerak ere, oinarri arautzaileetan aurreikusitako baldintza guztiak ez betetzeagatik.

Azaroaren 2ko 949/2021 Errege Dekretuan eta dirulaguntzen oinarrietan bi azpiprograma ezberdin aurreikusten dira: 1) biosegurtasunaren arloan inbertsioei laguntzeko programa, abereak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroak hobetzeko, edo xede horrekin zentro berriak eraikitzeko; eta 2) intsektu bektoreen aurka babesteko instalazioetan inbertsioak egiten dituzten eta landare material jakin batzuk ekoizten dituzten kategoriako operadore diren profesionalen laguntzeko programa. Deialdiko 2. puntuan azpiprograma bakoitzerako aurreikusitako funtsen zenbatekoa ezartzen da. Dena dela, bigarrenarako inolako laguntza eskaerarik jaso ez denez, Errege Dekretuaren 23. artikuluan aurreikusitako malgutasun mekanismoa aplikatuz, horien zati bat lehenengorako erabiliko dira, horretan onartu daitezkeen laguntzen zenbatekoa hasiera batean aurreikusitako kopurua baino handiagoa delako.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA,
TURISMO Y MEDIO RURAL

Orden Foral 0614 LI/2022, de 15 de noviembre, por la que se resuelve la convocatoria de 2022 de ayudas a inversiones en bioseguridad (Real Decreto 949/2021, de 2 de noviembre), en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Fondos Next Generation).

El Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, con fecha 15 de noviembre de 2022, ha dictado la siguiente Orden:

Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de abril de 2022 se aprobaron las bases reguladoras y la convocatoria de 2022 de «Ayudas a inversiones en bioseguridad (mejora o construcción de centros de limpieza y desinfección de vehículos de transporte por carretera de ganado, así como viveros), conforme al Real Decreto 949/2021, de 2 de noviembre, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Fondos Next Generation)». El citado acuerdo fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 80, de 29 de abril de 2022.

Para la financiación de esta línea de ayuda, en los presupuestos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural del presente ejercicio se consignaron un total de 114.366,00 euros, gasto que se autorizó en la convocatoria con cargo a la partida presupuestaria 5.0440.400.770.00.11.2024. Dicho importe se financia con los fondos procedentes de los Presupuestos Generales del Estado, dentro del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Tras el examen de las solicitudes recibidas, realizadas las actuaciones necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos correspondientes, la Comisión de Valoración prevista en la base 4 ha emitido la propuesta de resolución de la convocatoria, estableciendo las ayudas a conceder y su cuantía, así como las solicitudes a las que se deniega ayuda por no cumplir todos los requisitos recogidos en las bases.

En el Real Decreto 949/2021, de 2 de noviembre, y en las bases de las ayudas se prevén dos subprogramas de ayudas diferenciados: 1) programa de apoyo a las inversiones en materia de bioseguridad para la mejora de centros de limpieza y desinfección de vehículos de transporte por carretera de ganado, o para la construcción de nuevos centros con dicha finalidad; y 2) programa de apoyo a los operadores profesionales de categoría productor de determinados Materiales Vegetales que realicen inversiones en instalaciones de protección frente a insectos vectores. En el punto 2 de la convocatoria se establece el importe de los fondos previstos para cada subprograma. Sin embargo, no habiéndose recibido solicitudes de ayuda para el segundo de ellos, en aplicación del mecanismo de flexibilidad previsto en el artículo 23 del Real Decreto, se destina parte de su importe al primero, en el cual el importe de las subvenciones admisibles supera el inicialmente previsto para las mismas.

Azkenik, 5. oinarriak ezartzen duen bezala, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hori horrela, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Ematea foru agindu honen I. eranskinean adierazitako dirulaguntzak, biosegurtasunaren arloan inbertsioak egitekoak (abereak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroen hobekuntza edo eraikitzea, eta mintegiak) (2022ko deialdia), guztira 89.433,82 euroko zenbatekoan, 5.0440.400.770.00.11.2024 kontu sailean baimendutako gastuaren kargura, eta deialdiko soberakina baliogabetuz (24.932,18 €).

Bigarrena. Ezezteza foru agindu honen II. eranskinean adierazitako eskaerak, adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena. Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

I. ERANSKINA

ONURADUNAK ETA ZENBATEKOA

— Biosegurtasunaren arloko inbertsioei laguntzeko programa, abereak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroak hobetzeko, edo xede horrekin zentro berriak eraikitzeko (949/2021 Errege Dekretuaren II. kapitulua):

Tal y como se establece en la base 5, la presente resolución será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

En su virtud, este diputado foral

RESUELVE

Primero. La concesión de las ayudas que se relacionan en el anexo I de esta orden foral, para inversiones en bioseguridad (mejora o construcción de centros de limpieza y desinfección de vehículos de transporte por carretera de ganado, así como vivos) (convocatoria 2022), por un importe total de 89.433,82 euros, con cargo al gasto autorizado en la partida presupuestaria 5.0440.400.770.00.11.2024, anulando el importe excedentario en la convocatoria (24.932,18 €).

Segundo. La desestimación de las solicitudes que se relacionan en el anexo II de esta orden foral, por los motivos que se señalan.

Tercero. Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

ANEXO I

PERSONAS BENEFICIARIAS E IMPORTE

— Programa de apoyo a las inversiones en materia de bioseguridad para la mejora de centros de limpieza y desinfección de vehículos de transporte por carretera de ganado, o para la construcción de nuevos centros con dicha finalidad (capítulo II Real Decreto 949/2021):

Esp. kod. Cód. exp.	IFK NIF	Eskatzailea Solicitante	Proiektuaren izena Denominación proyecto	Onartutako aurrekontua Presupuesto aceptado (€)	Lag. ehunekoa Porcentaje subv. (%)	Laguntza Subvención (€)
2022-GA05-000002-01	A20096640	MATADERO FRIGORÍFICO DONOSTIARRA, SAL	Abereak garraiatzeko ibilgailuen garbiketa- eta desinfekzio-zentroa egokitzea eta hobetzea / Acondicionamiento y mejora del centro existente de limpieza y desinfección de vehículos destinados al transporte de ganado	74.470,79	70	52.129,55
2022-GA05-000003-01	B20738753	GANADUA BILTZEN, S.L	Desinfekzio zentrua / Centro de desinfección	53.291,81	70	37.304,27
Programa guztira / Total programa						89.433,82

Dirulaguntzen baldintzak:

1. Dirulaguntzen finantzazioa Estatuko Aurrekontu Orokorretatik dator, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan. Aldi berean, funts horiek «Next Generation» Berreskuratze Funtsetik datoz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan garatutako arau esparruaren helburuekin bat etorritik. Erregelamendu horrek Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen du.

2. Laguntzaren xede diren jarduketek aplikagarri zaien indarreko araudia bete beharko dute. Era berean, beharrezkoak diren kasuan, nahitaezko administrazio lizentziak eta baimenak izan beharko dituzte dirulaguntzak ordaindu aurretik.

3. Dirulaguntza ordaintzeko, laguntzaren oinarri den inbertsioa egin beharko da (jarduketaren memoria, justifikazio kontua eta ziurtagiriak eta, hala badagokio, gauzatutako inbertsioei dagozkien ordainketa egiaztagiriak jaso ondoren); era berean, be-

Condiciones de las ayudas:

1. Dichas ayudas se financian con los fondos procedentes de los Presupuestos Generales del Estado, dentro del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. A su vez, esos fondos provienen del Fondo de Recuperación «Next Generation», de acuerdo con los objetivos del marco normativo desarrollado en el Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, que establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.

2. Las actuaciones objeto de ayuda deberán cumplir con la normativa vigente que les sea de aplicación. Asimismo, deberán contar con las preceptivas licencias y autorizaciones administrativas en el caso de que las mismas lo requieran, con anterioridad al pago de las subvenciones.

3. El pago de la subvención estará condicionado a la realización de la inversión que fundamente la ayuda (una vez recibidas la memoria de la actuación, cuenta justificativa y comprobadas las certificaciones y, en su caso, los justificantes de pago relativos a

harrezko kontrol eta egiaztapenak egingo dira, aplikagarria den diru laguntzei buruzko araudian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen direla egiaztatzeko.

4. Diruz lagundutako jarduerak laguntza eman eta gehienez ere urtebeteko epean gauzatu beharko dira; hala ere, epe hori hemezortzi hilabetera luzatu ahal izango da, justifikatutako arrazoiengatik eta onuradunak luzapena eskatu ondoren. Inbertsio proiektu osoa gauzatu izanaren dokumentazio zuzigarria gehienez ere amaitu ondorengo sei hilabetetan aurkeztu beharko da, Diputatuen Kontseiluaren 2022ko apirilaren 26ko Erabakiaren bidez onartutako 9. oinarriak ezarritako edukiarekin.

5. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak dirulaguntza jaso duen xede jakinera ondasunak zuzentzeko epea ezin izango da izan 2 urte baino gutxiagokoa (5 urte, erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan). Betebeharrak hori ez betetzeak dirulaguntza itzuli behar izatea ekarriko du, aipatutako foru arauaren II. tituluko II. kapituluaren ezarritako baldintzetan, eta ondasuna itzulketaren ordainketari atxikita geratuko da, haren edukitzea nork nahi dela ere, erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat denean izan ezik edota fede onez eta titulu egokiaren ondoren erosteketa zuzitzen denean izan ezik, edo merkataritza edo industria establezimenduan eskuratu denean izan ezik, inskribatu ezin diren ondasun higigarrien kasuan.

6. Dirulaguntzaren onuradunak bete beharko ditu martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 13. artikuluan adierazten dituen obligazioak, eta azaroaren 2ko 949/2021 Errege Dekretuaren 5. artikuluan adierazitakoak.

Bereziki, eta aipatutako Errege Dekretuaren 26.3 artikuluen arabera, Europar Batasuna-Next Generation erakundearen finantzaketa dutela adierazi beharko da jarduketetan, barnean harturik dokumentazio edo argitalpenak, edonolakoak eta edozein euskarritan direla ere, eta komunikatzeko nahiz ikustera emateko jarduketa guztiak, sariak eta publizitatea.

Halaber, Susperketa, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak betebeharrak hauek izango ditu: datuak ematea, laguntza programa kudeatzeko lagapena onartzea, Susperketa, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoa hartzea eta, kasua bada dagokion zerga araudiaren arabera, Zerga Administrazioari Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo Foru Zerga Administrazioaren errolda baliokidean inskribatuta dagoela egiaztatzea, laguntza eskatzen den egunean benetan garatutako jardura ekonomikoa islatuko duena.

II. ERANSKINA

EZEZTATUTAKO ESKAERAK ETA HORREN ARRAZOIA

— Biosegurtasunaren arloko inbertsioei laguntzeko programa, abereak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroak hobetzeko, edo xede horrekin zentro berriak eraikitzeko (949/2021 Errege Dekretuaren II. kapitulua):

las inversiones ejecutadas), así como a la realización de los controles y comprobaciones oportunas que acrediten el cumplimiento de los requisitos establecidos en la normativa aplicable.

4. Las actuaciones subvencionadas deberán materializarse dentro de un máximo de un año a partir de la concesión de la ayuda; no obstante, dicho plazo podrá ampliarse a dieciocho meses por razones justificadas y tras la solicitud de ampliación de La persona beneficiaria. La documentación justificativa de la ejecución completa del proyecto de inversión se presentará como máximo 6 meses después de la finalización de la misma, con el contenido establecido en la base reguladora 9 de las aprobadas mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de abril de 2022.

5. Conforme a lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el periodo durante el cual la persona beneficiaria deberá destinar los bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención no podrá ser inferior a dos años (5 en caso de tratarse de bienes inscribibles en un registro público). El incumplimiento de esta obligación será causa de reintegro, en los términos establecidos en el capítulo II del título II de la citada Norma Foral, quedando el bien afecto al pago del reintegro cualquiera que sea la persona poseedora, salvo que resulte ser una tercera persona protegida por la fe pública registral o se justifique la adquisición de los bienes con buena fe y justo título o en establecimiento mercantil o industrial, en caso de bienes muebles no inscribibles.

6. La persona beneficiaria deberán cumplir cuantas obligaciones se señalan en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como las indicadas en el artículo 5 del Real Decreto 949/2021, de 2 de noviembre.

En particular, y conforme establece el art. 26.3 del citado Real Decreto, hará constar en las actuaciones, incluyendo cualquier documentación o publicación de cualquier índole y soporte, actuación de comunicación o visibilidad, premios y publicidad, que son financiadas por la Unión Europea-Next Generation.

Asimismo, conforme a lo establecido en el artículo 8.1 de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, la persona beneficiaria deberá suministrar los datos, aceptar su cesión para la gestión del programa de ayuda, comprometerse al cumplimiento de los principios transversales establecidos en el Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia (PRTR) y acreditar, conforme a la normativa tributaria aplicable en su caso, la inscripción en el Censo de empresarios, profesionales y retenedores de la Agencia Estatal de Administración Tributaria o en el censo equivalente de la Administración Tributaria Foral, que debe reflejar la actividad económica efectivamente desarrollada a la fecha de solicitud de la ayuda.

ANEXO II

SOLICITUDES DENEGADAS - MOTIVO

— Programa de apoyo a las inversiones en materia de bioseguridad para la mejora de centros de limpieza y desinfección de vehículos de transporte por carretera de ganado, o para la construcción de nuevos centros con dicha finalidad (capítulo II Real Decreto 949/2021):

Esp. kod. Cód. exp.	IFK NIF	Eskatzailea Solicitante	Proiektuaren izena Denominación proyecto	Ezeztatze zioa Motivo de denegación
2022-GA05-000001-01	***5160**	UNANUE, ESTENSORO, XABIER	Arco de desinfección para granja avícola	Onuradun taldekoa ez izatea (ED 949/2021, 6. art.) / No pertenecer al grupo de posibles beneficiarios (art. 6 RD 949/2021)

Esp. kod. Cód. exp.	IFK NIF	Eskatzailea Solicitante	Proiektuaren izena Denominación proyecto	Ezetzatzeko zioa Motivo de denegación
2022-GA05-000004-01	B20126413	INCAROSA S.L.	Centro de limpieza y desinfección	Onuradunen taldekoa ez izatea (ED 949/2021, 6. art.) / No pertenecer al grupo de posibles beneficiarios (art. 6 RD 949/2021)
2022-GA05-000005-01	***8958**	BARRIUSO, ZABALETA, VANESA	Ibilgailuetarako desinfekzio arkua	Onuradunen taldekoa ez izatea (ED 949/2021, 6. art.) / No pertenecer al grupo de posibles beneficiarios (art. 6 RD 949/2021)
2022-GA05-000006-01	***5110**	INTXAUSTI, IRASTORZA, MAIDER	Desinfekzio zentroa	Onuradunen taldekoa ez izatea (ED 949/2021, 6. art.) / No pertenecer al grupo de posibles beneficiarios (art. 6 RD 949/2021)
2022-GA05-000007-01	***4812**	AZKUE, EIZMENDI, GALDER	Desinfekzio arkua biosegurtasuna hobetzeko	Onuradunen taldekoa ez izatea (ED 949/2021, 6. art.) / No pertenecer al grupo de posibles beneficiarios (art. 6 RD 949/2021)

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko foru diputatu honi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo us-tezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko azaroaren 15a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (7194)

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 15 de noviembre de 2022.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (7194)